



#### Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Ongiz-on! Maskulinitate tradizionala eraisten eta berdintasunaren eraikuntzan gizonen parte hartzea sustatzen**

Egileak / Autores/as: **Xabier Odriozola  
Maribel Pizarro  
Aitor Arizeta**

Saila / Colección: Saiopaperak - Pentsamendua eta gizartea, 25

ISBN / EAN: 978-84-9109-467-8

Salneurria / Precio: 16 € (BEZ barne – IVA incluído)

Orri kopurua / N° páginas: 240

Formatua / Formato: Rustika / Rústica - 14 x 22,5 cm

Materia: Saiakera - Ensayo

#### Lana / La obra

Gizonezkoek aktiboki parte hartu behar dute gizarte eredu demokratikoago eta berdintasun-zaleago baten eraikuntzan: emakumeek eta gizonezkoek eskubide eta ardura berberak edukiko dituzten, aukeren berdintasuna emaitzen berdintasun bihurtuko den eta emakumeen aurkako indarkeria sinbolikoa eta erreala egongo ez den gizarte eredu.

Abiapuntu honetatik diseinatu eta ebaluatu dugu emakumeen aurkako indarkeria aurrezaindu eta sexismoaren deuseztatzea bilatzen dituen tresna bat, gizonezkoen sentsiberatasuna pizteko taldeak zuzendu dezaketen gizonak kontzientizatzeko eta gaitzeko. Gida honen lan saioretan analisisia eta ezagutzaren bereganatzea bateratzen dira sistema patriarkalaren eta sexismoaren analisi sozio-kultural eta politikoarekin eta baita nor bere buruaren lanarekin eta bizipenekin ere.

Lan era honen bitartez aldaketak maila ideologikoan zein psiko-emozionalean eragin nahi dira, analisi kritikoa eraiki naturalizatua izan dena antzemateko, eguneroko aurreiritziak eta azalpen murriztatzaileak zein desitxuratzzaileak antzeman eta baztertzeko. Emakumeentzat zein gizonentzat desegoki, desorekatu eta kaltegarriak diren egoerei aurre egin eta normaltzat ez jotzea eta gizon bezala beren identitatea eta nortasuna zein parametroetan eraikiak izan diren aztertzea bilatzen da ere bai; era berean, emakumeen eta gizonezkoen arteko harremanak –zein gizonezkoen artekoak– nola eta nondik eraiki dituzten eta zein jokabide kaltegarri, zapaltzaile... barneratu dituzten ohartzea eta aldatzea proposatzen da. Honekin batera, norberaren zein ingurukoaren emozioak eta beharrak ezagutu eta egoki adierazteko eta enpatizatu, zaindu, hartatu eta harreman justuak, elkarkoia eta berdintasunarekiko zentzuzkoak gartzeko helburua barnebiltzen du.



9 788491 094678



### Egileak / Autores/as

**Xabier Odriozola.** Antropologian lizentziatua, psikoterapeuta eta irakaslea da. Azken urteetan, gizon eta emakume taldeekin aritu da lanean, eta hamarnaka hitzaldi eta ikastaro partekatu ditu berdintasuneko gizartea eraikitzeke eredu berritzaileak proposatuz. Hainbat artikulu idatzi ditu maskulinitatearen inguruan, baita 2014. urtean argitaratutako liburu bat ere, *Gizonezkoen sexismoa, maskulinitasuna eta askapena: Berdintasunerantz* (Metaziri, 2014).

**Aitor Aritzeta.** Psikologian Doktorea. Emozioak eta Gaitasun sozioemozionalen irakasgaiko irakaslea Psikologiako Graduan, Euskal Herriko Unibertsitatean. Guztira 60 argitalpen inguru ditu, artikulu zientifikoak, liburuak eta liburuko atalak batuta, eta 100dik gora kongresu zientifikotan parte hartu du. Psikologian genero ikuspegia kontuan hartzen duten hainbat egitasmotan parte hartu du, berdintasunaren legea ebaluatuz, lan ekipoen eraginkortasuna eta generoa ikertuz, lidergoa eta generoaren inguruko tesi bat zuzenduz, eta bide segurtasuna eta generoaren arteko harremana ikertuz.

**Maribel Pizarro.** Psikologo Soziala, Genero Ikuspegiko Ebaluazioan aditua. Unibertsitatearen alorrean aritu da lanean 25 urtez (lkerketa eta Irakaskuntzako proiektuak, Practicum eta Master mailetan). 2006 eta 2012 bitartean "gizonen inplikazioa berdintasunean eta emakumeen kontrako bortxakeria ezabatzean" gaiekin loturiko programak koordinatu eta ebaluatu zituen. Gaur egun Gipuzkoako Itxaropenaren Telefonoan ari da lanean, eta erakunde horren Zuzendaria da.